



PALESTINAKO GENOZIDIOA

Nazioarteko komunitatea indarkeri anker baten lekuko da egunotan. Israelgo Estatuak Palestinari eragindako indarkeria indiskriminatu eta zigorgabearen aurrean kokatu da berriz ere. Gernika-Lumotik gure besarkada solidarioa eskeini nahi diogu palestinari herriari. Gaza errautsetatik berpiztuko da Gernikak egin zuen bezala.

Zoritzarreko Nakbatik (1948 urtean) lurralde palestinarra zatitu egin dute, ondasunak kriminalki blokeatu zaizkio, biztanleriaren mugimenduak murriztu egin dira egunerokotasuna eta harremanak oztopatzeko eta expolioa jasan du hedapen sionista geldiezinak bere lurra okupatuz. Ez dirudi, ordea, nahikoa denik estatu sionista asetzeko. Horrek guztiak, pandemiak eragin duen min gehigarriarekin, are larriagoa egiten du Palestinak bizi duen egoera prekariora.

Palestinarek apartheid instituzionalizatu bat pairatzen dute, gutxi aipatzen dutena; horren aurka egiten dutenak (nazioarteko kooperanteak, adibidez) erreprimitu eta espetxeratu egiten dituzte. Komunikabide handiek, lobby juduen eskuetan daudenez, modu eraginkorrean laguntzen dute isiltasun hori bermatzeko; bonbak dira hitz egiten duten bakarrak. Israelgo armadaren hegazkinek Palestinako biztanleria sistematikoki bonbardatzen dute, eta gerra-teknologia sofistikatua eta zehaztasun eta suntsipen ahalmen handikoa erabiltzen dute. Gerra-ekintza honek agerian uzten du, berriz ere, gatazkan murgilduta dauden aldean arteko baliabideen desproporzioa.

Palestinaren artean kaosa eta heriotza ereiten dituen matonismoa sistematikoa da. Sionismoak 1948. urteaz geroztik darabilen deuseztatze eta sarraski politikak, ordea, ez du erantzun sendorik izan mendebaldeko gobernu "demokratikoen" aldetik; are gehiago, bere "distantziakidetasun" hipokrita eta bere ekintza ezak "Israelen defendatzeko eskubidea" justifikatu dute bere lurraldearen aurkako erasoetatik. Hala adierazi berri du Josep Borrell Batasuneko Atzerri Gaietarako ordezkari gorenak. Palestinaren eta Israelen arteko auzi hau ez da atzerriko arazo, ez da kanpoko arazo; gizarte justuago eta ekitatiboago baten alde borrokatzen dugun guztioi barne-barnean ukitzen gaituen gertakaria da. Beraz, guztiok interpelatzen gaituenez ezin gara isilik eta besoak gurutzatuta geratu. Danone, Coca-cola, Nestlé bezalako produktuekiko boikota egitea ekarpen solidario bat izan daiteke.

Nazien kontzentrazio-esparruetako sufrimenduak ez du justifikatzen Gaza kontzentrazio- eta sarraski-esparru bihurtzea. Holokausto judua...ta galderak sortzen. Horra batzuk: ¿holokausto judua zigorgabetasunerako ziurtagiria al da? ¿Noiz arte?

Amaitzeko gure elkartasuna berresten dugu Palestinarekin, eta gogora ekartzen ditugu Sahara eta Kurdistan, besteak beste, antzeko egoerak bizi dituzten "Gernikak",